

Euskal Selektzioek ofizialtasuna behar dute

Euskal Herriko eta Kataluniako futbol selektzioek iragan igandean Bartzelonan jokatutako partidak, kirola maite dugun guztiontzat ikuskizun aparta izateaz gain, euskaldunok geure kirol selektzioekin gozatzeko dugun eskubidea, eta aldarrikapena, mahai gainean jarri du berriro ere. Zalantzarik gabe, gai hau eztabaida politikoaren erdigunean jartzeko aukera ederra ematen digu euskal selektzioen ofizialtasuna aldarrikatzen dugun alderdiori, are gehiago gure jokalariai Estatu gabeko beste nazio baten selektzioaren aurka lehiatu direla kontuan hartzen badugu. Honek partidaren garrantzia bikoiztu egiten du beraz, sinbolismo hutsetatik baino haratago joanez. Espainiako futbol agintariak ederki jabetu dira honetaz, ipini dituzten oztopoak eta egin duten presioa bakarrik horrela uler daitezkeelako. Euskal Herriko eta Kataluniako jokalariei euren selektzioen ofizialtasuna Camp Nouen bertan aldarrikatzea debekatu zien Espainiako Futbol Federazioak, eta partida igandera arte atzerarazi zuen larunbatean Espainiak Suedian jokatzen zuelako. Geurea bigarren mailako partida ote?

Debekuak debeku, ofizialtasunaren aldarrikapenak muga eta hesi guztiak gainditu ditu, horixe baita partida honen oinarrian zegoena. Eta honekin ez dut esan nahi, inolaz ere, Eusko Alkartasunak ez duela bat egiten aukeratutako leloarekin: “Elkarrekin bakearen alde”. Nork esango dio ezetz, ba, bakeari? Inork ez. Kontua ez da hori, baizik eta lelo behartu horren bitartez funtsean dagoen eskakizuna estali nahi izan dela. Lortu gabe, noski. Data, gainera, esanguratsua zen, iragan asteburua FIFAk jarritako data ofiziala zen neurrian Euskal Herriko taldea beste edozein selektzio bezala aritu delako. Ez da nahikoa, argi dago, baina bai norabide egokian ematen dugun beste aurrerapausu bat. Soberan egon gabe ere, Gabonetako partiduen folklore hutsean erortzeko arriskua behin betiko ezabatzeko balio beharko lukeen aurrerapausua, gaineratuko nuke. Eusko Alkartasunak, ildo horri jarraituz, gure kirolariek nazioartean lehiaketa ofizialetan parte hartzeko eskubidearen aitortza lortu artean ahalegin guztiak egiteko borondate osoa duela ozenki esan dezaket, bai eta helburu horri begira lanean ari den jende andanarekin bat egiteko prest gaudela ere.

Euskal selekzioen aldeko aldarrikapena ez da folklore kontua, askoz gehiago baizik. Gaur egun, albistegietan eta, oro har, komunikabideetan kirol informazioak gero eta pisu handiagoa duen garai honetan, bere nazio izaera aldarrikatzen duen gurea bezalako edozein herrirako funtsezkoa da nazioartean bere burua herri gisa aurkeztu ahal izatea, eta horretarako zer hobeto kirol lehiaketa ofizialetan parte hartzea baino. Adibideak ere baditugu: Gibraltar, Estaturik gabe eta britaniarren kolonia izanik, albiste izan da aste honetan UEFAk gibraltarren eskaera onartu eta hauen selekzioa ofizialki onartzeko lehen urratsa eman duelako. Feroe Uharteko futbol selekzioa ere hor dago. Nork kokatuko lituzke irla horiek mapa batean bere futbol selekzioagatik izan ez balitz? Nork ezagutuko luke uharte horrek Danimarkan duen autogobernua?

Seguraski ez luke horrela izan beharko baina, zoritxarrez, behin baino gehiagotan kirola izaten da biderik eraginkorrena beste modu batez lortzerik ez legokeen ospea eta izena erdiesteko. Azken batean, existitzen gara besteek ikusten gaituzten neurrian, eta guk, euskaldunok, feroetarrek eta gibraltarrek bezala, ikustezinak izateari utzi nahi diogu kirol arloan ez ezik, beste eremu guztietan ere bai.

Eta normaltasunez aldarrikatzen dugu, normala delako, edo izan beharko luke behintzat, kirolari batek bere herria ordezkatu nahi izatea eta eskubide hori aitortzea. Arazoa ez dugu euskal selekzioen ofizialtasuna eskatzearen sen ona erabili eta mahai gainean argudiorik onena jartzen dugunok, alegia, euskal gizartearen babes osoa. Hemen benetan arazo bat daukatenak dira gehiengo sozialaren nahiari aurre egiteko espainiartasun kontzeptu sasisakratua besterik ez dutenak. Hauek kirol federazioen arauak beren alde izan ditzakete gaur egun eta horrek ematen dien indarraz baliatzen dira, baina hori ere aldatuko da batzuek uste baino lehenago, gizartearen borondatean ondo sustraiturik ez dagoenak etorkizunik ez duelako.

Horixe da gure abantaila. Euskal selekzioak nazioartean lehiaketa ofizialetan ikustea denbora kontua baino ez da, euskal gizartea alde daukagulako. Madrilen eta

Parisen ez bezala, ofizialtasunaren aldeko aldarrikapena erabat erroturik dago Euskal Herrian eta abertzaleok ez ezik, PPko eta PSEko hautesleek ere bat egiten dute eskakizun honekin, Soziometroak gai honen inguruan eginiko inkestek adierazten duten moduan. Azkenengoan, duela bi urte eginikoan, EAeko biztanleen %64 euskal selekzioek nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzearen alde agertu zen. Kontrakoak, aldiz, %14 bakarrik izan ziren. Zenbakiak adierazgarriak dira oso, eta baita ere 2000. urteko beste Soziometro batean jasotakoak. Hartan PPko hautesleen artean gehiago zeuden alde (%41) kontra baino (%38). Eta berdin PSEkoekin: %56 alde eta %20 kontra. Ez gaude, beraz, sektore politiko soil baten aldarrikapen baten aurrean, euskal selekzioarekin bat eginez herri oso bat dagoelako. Orain arte ametsa izan dena errealitate bihurtzea izan behar du hemendik aurrera gu guztion ardura. Igandean urrats bat eman dugu, zerrenda luze baten lehena izan dadila.

Onintza Lasa

Eusko Alkartasuneko Komunikazio idazkaria

2006ko urria